



etakitto.eus

(<https://etakitto.eus/>)

PDF-a (<https://etakitto.eus/wp-content/uploads/2020/06/eta-kitto-1146-1.pdf>)

Familia-laguntzarik ez duen arrisku-populazioaren zerbitzura jarri da DYA Gipuzkoa

Gizartea (<https://etakitto.eus/category/berriak/gizartea>)

ETA
KITTO
2020,
MAR
16



#GeldituEtaLagundukoDizugu

Kaixo herritarrok,

DYA Gipuzkoan 46 urte daramatzagu Gelditu eta Laguntzen baina oraingo honetan **lelo hori aldatu eta egokitu egin nahi dugu egungo egoerara eta zuri eskatu nahi dizugu gelditzeko**, arriskuan dagoen herritarra zarelaiko, **#Gelditu, #Geldituetxean eta gu arduratuko gara zuri laguntzeaz.**

Gauzak errazteko, **DYA Gipuzkoak eskura jarriko dizkizu beharrezko diren errekurtsuak eta pertsonak, ongi prestatutako eta koordinatutako boluntarioak, ahalik eta hobekien lagundu ahal izateko premiazkoak eta oinarritzkoak diren behar horiek.**

Zure Gizarte Segurantzako txartela eta NANA hartu genitzake eta behar duzun medikazioa etxera eraman, elikagaiak helarazi edo bestelako gestioak* egiten lagundu, zuretzat arriskutsua izan daitekeena. Arrisku horiek guztiak ekiditea nahi dugu.

Gisa honetako beharrik baldin badezu eta etxean egon zaitezten lagun bagenezake, deitu 943 46 46 22 zenbakira, eguneko edozein ordutan.

Denon artean, eta beti ere osasun arloko agintarien jarraibideei kasu eginez, egoera honi aurre egitea lortuko dugu.

DYA beti egongo da zuri laguntzeko.

* Osasun arloko gaien eskumena Osakidetarena da. Ulertzekoa dan moduan gure errekurtsu guztiak Osakidetari eskainiak daude eta hauek hala eskatuz gero berehala jarriko dira zerbitzuan.

DYA 943
GIPUZKOA 46 46 22

www.DYAgipuzkoa.com

(https://11.wp.com/etakitto.eus/wp-content/uploads/2020/03/IMG_20200316_172014.jpg)Koronabirusaren krisiaren ondorioz gaur egun dagoen osasun-larrialdiaren aurrean, DYA Gipuzkoak (<https://www.dyagipuzkoa.com/eu/>) bere giza talde guztia arriskuan dagoen babesik gabeko populazioaren eskura jartzea erabaki du. Horrela, arrisku talderen batean daudenak, laguntzeko inor ez izateagatik, egoerak behartuta kalera irtetzea saihestu nahi dute.

Bere lemak dioen moduan, DYA Gipuzkoak 46 urte daramatza gelditzen eta laguntzen, baina oraingoan lema hori egokitu nahi izan dute, **#GeldituEtaLagundukoDizugu** esaldiarekin etxean gelditzen direnak arriskuan dauden pertsona horiek izan daitezela aditzera emateko.

Diotenez, *"persona horiei DYA Gipuzkoak lagunduko die, eta bere baliabide eta giza talde guztiak, boluntario prestatuak eta koordinatuak jarri nahi dituzte pertsona horiei farmaziako botikak ekartzeko, erosketak egiteko edo arriskuren bat ekar dezakeen beste edozein gestio egiteko. Eskaera guzti horiek 943 46 46 22 telefonoaren bitartez bideratuko ditugu".*

Print (<https://etakitto.eus/berriak/gizartea/koronabirusaren-berrogeialdian-familia-laguntzarik-ez-duen-arrisku-populazioaren-zerbitzura-jarri-da-dya-gipuzkoa.html#print>)

Email (<https://etakitto.eus/berriak/gizartea/koronabirusaren-berrogeialdian-familia-laguntzarik-ez-duen-arrisku-populazioaren-zerbitzura-jarri-da-dya-gipuzkoa.html#share=email&nb=1>)

Partekatu 0 Tweet

Memoriaren Egunaren harira, biktimen testigantzak jasotzen dituzten bideoak eskainiko dituzte udal txean (<https://etakitto.eus/berriak/memoriaren-egunaren-harira-biktimen-testigantzak-jasotzen-dituzten-bideoak-eskainiko-dituzte-udaltxean.html>)
2018-11-12
In "Berriak"

ANARTZ ORMAZA: "Hezkuntza sisteman arkitektura barneratzeko saiakerak dauden arren, oraindik bidea egiten gabiltza" (<https://etakitto.eus/berriak/elkarrizketak/anartz-ormaza-hezkuntza-sisteman-arkitektura-barneratzeko-saiakerak-dauden-arren-oraindik-bidea-egiten-gabiltza.html>)
2016-07-12
In "Elkarrizketak"

"Txintxarriaren ardiaren atzetik, beste denak... edo ez?" (Iraia Muñoa) (<https://etakitto.eus/irizia/txintxarriaren-ardiaren-atzetik-beste-denak-edo-ez-iraia-munoa.html>)
2017-12-14
In "Iritzia"

#covid19 (<https://etakitto.eus/tag/covid19>) #EtxeanGeratu (<https://etakitto.eus/tag/etxeangeratu>) #koronabirus (<https://etakitto.eus/tag/koronabirus>) dya (<https://etakitto.eus/tag/dya>)

Webgune honek cookieak erabiltzen ditu, proposioak eta beste batzuenak, pertsonalizazioak eta azterketak, gure zerbitzuak hobetu eta webgunean nabigazioaren informazio estatistikoa biltzeko. Cookieen politika.

ONARTU Gehiago irakurri (<https://etakitto.eus/aldizkaria/cookieak-politika>)